

1.1 COMPRA DE UN ORDENADOR
1.1 ORDENAGAILU BAT EROSTEA



¿QUÉ NOS APORTAN LOS ORDENADORES?

ZEIN EKARPEN EGITEN DIGUTE ORDENAGAILUEK?

El ordenador nos proporciona mejor disponibilidad de los datos, al igual que un mayor manejo de los mismos, por lo que conseguimos aumentar la capacidad y ahorro de tiempo en buscar información. Con ello podremos tener un mayor rédito en la información y tiempo para dedicarnos a otras tareas en nuestro negocio.

Con la entrada del Ordenador en el mundo laboral hemos conseguido una mayor eficacia en nuestro que hacer diario y un mejor control de la información. Con ello somos capaces de poder ahorrar espacios en nuestras oficinas y poder sacar el historial de nuestra clientela en décimas de segundo, sin necesidad de tener que recorrer toda la oficina en busca del archivero adecuado.

Imaginémonos por unos minutos una empresa familiar que su actividad empresarial es la venta e instalación de cortinas en viviendas. Esta empresa está formada por dos personas, una de éstas atiende la tienda y la otra toma medidas y realiza las instalaciones en las viviendas de la clientela.

El ciclo productivo de la empresa empieza en el momento que la clientela se dirige a la tienda a solicitar cita para la toma de medidas del hogar. Esta cita es anotada en una agenda y posteriormente se toman las medidas en los hogares y se apuntan en un cuaderno. Una vez tomadas las medidas se realiza el presupuesto mediante una maquina de escribir y en el caso de ser aprobado se genera el pedido de las telas a la empresa proveedora oportuna y se elabora una factura. Esta factura es emitida de la misma manera que el presupuesto y una vez realizado el encargo se archiva en formato papel y el presupuesto no aprobado se desecha.

Ordenagailuak datuak eskuragarriago izateko eta horiek hobeto maneiatzeko aukera ematen digu. Horrela, informazioa bilatzeko garaian ahalmen handiagoa eta denbora aurreztea lortzen dugu. Horri esker, informazioari etekin handiagoa aterako diogu eta gure negozioan beste zeregin batzuetan denbora gehiago eman ahal izango dugu.

Ordenagailua lan-munduan sartzearekin batera eraginkortasun handiagoa lortu dugu eguneroko zereginetan, bai eta informazioaren kontrol handiagoa ere. Hala, bulegoan espazioa irabazteko eta bezeroen historiala segundo-hamarren gutxi batzuetan ateratzeko gai gara, artxibo egokiaren bila bulego osoan zehar ibili behar izan gabe.

Demagun familia-enpresa bat dugula, etxebizitzetarako errezelak saldu eta instalatzen diharduena. Enpresa hori bi pertsonak osatzen dute. Batak dendan arreta egiten du eta besteak neurriak hartu eta bezeroaren etxebizitzan errezelak instalatzen ditu.

Enpresaren produkzio-zikloa bezeroa dendara joan eta etxean neurriak hartzeko hitzordua eskatzen duenean hasten da. Hitzordu hori agenda batean jasotzen da eta, ondoren, etxean neurriak hartu eta horiek koaderno batean idazten dira. Neurriak hartu eta gero, idazmakina batekin aurrekontua egiten da eta, aurrekontua onartuz gero, dagokion enpresa hornitzaileari oihalen eskaera egiten zaio eta faktura egiten da. Faktura hori aurrekontua bezalaxe egin da eta, enkargua egin ondoren, paperezko formatuan artxibatzen da eta onartu ez den aurrekontua ezabatu egiten da.

Uno de los problemas que se encuentra la empresa, es a la hora de hacer un mailing general a toda la clientela. Esto les lleva mucho tiempo, ya que tienen que buscar en todos los archivadores de la oficina los datos de toda la clientela que han tenido en alguna ocasión. Hasta el momento es todo normal, como en cualquier otro negocio no informatizado, pero si decimos que toda esta gestión ha sido realizada mediante un cuaderno, un teléfono y una maquina de escribir nos daríamos cuenta que a lo largo de los 18 años que llevan realizando esta actividad, habrá personas que no les han terminado de pagar en su totalidad las facturas emitidas, la contabilidad ahora la administra otra empresa y se les han podido extraviar expedientes de la clientela o bien ni siquiera los guardan, o no disponen de espacio en la oficina para guardar todos los archivadores de los últimos 5 años. Con la informatización de este negocio, conseguiríamos una serie de ventajas, como...

1º Automatización de las tareas: Con ello conseguiremos automatizar la realización de presupuestos y emisión de las facturas, disponibilidad de una Base de Datos (ficha 4.1.) con toda la clientela y ventas que se han realizado, al igual que la disponibilidad de un análisis de las telas mas vendidas.

2º Control Económico & Financiero: Disponibilidad de datos financieros sin esperar a finales de mes. Consiguiendo con ello un mejor manejo de la información de los beneficios o gastos en cualquier fecha, sin esperar al diagnóstico de la asesoría que lleva las cuentas (ficha 4.3.).

3º Control de la Información: Con ello conseguiremos disponer de información, tanto de nuestra clientela como de las empresas proveedoras, sin necesidad de buscar en los archivadores de la oficina, eliminando así la posibilidad de duplicidad de la información. Otra de las ventajas de disponer de un control mayor de la información, es la posibilidad de disponer de datos de nuestra clientela, tales como: clasificación por edades, sexo, población, consumo realizado...

4º Ahorro de espacio: Con la ayuda de los ordenadores podremos disponer de todo aquel espacio de la oficina que en la actualidad está ocupado por baldas con archivadores de facturas.

5º Ahorro de Tiempo: Los ordenadores nos permiten buscar información de la clientela en menor tiempo, posibilitándonos incluso utilizar un filtro para hacer la búsqueda de la información que necesitamos en cada momento y sin tener que tocar el resto. Por lo tanto, podremos utilizar ese tiempo, que hemos ganado, en otras actividades empresariales.

6º Seguridad: ¿Alguien ha pensado alguna vez que pasaría si la oficina tendría algún desastre natural o bien un simple incendio o inundación? Con la informatización de nuestra oficina podremos tener la ventaja de realizar copias de seguridad periódicas, con el objeto de tener siempre una copia de respaldo con la información a salvo de todo el trabajo realizado y de toda nuestra clientela (ficha 7.3.).

Enpresak topatzen duen lehen arazoetakoa bezero guztientzat mailing orokorra egitea da. Horretarako denbora asko behar dute, bulegoko artxibo guztietan, izan dituzten bezero guztien datuak bilatu behar dituztelako. Ordura arte dena normala da, informatizatu gabeko edozein negoziotan gertatzen den bezala. Baina, kontuan hartzen badugu kudeaketa hori guztia koarderno, telefono eta idazmakina bidez egin dela, ohartuko gara jarduera hori egiten daramaten 18 urteetan zehar, egindako faktura bere osotasunean ordaindu ez dutenak egongo direla, orain kontabilitatea beste enpresa batek administratzen duela eta, behar bada, zenbait bezeroren espedienteak galdu dituztela, edota espediente horiek gorde ere egiten ez dituztela, edo azken 5 urteetako artxibo guztiak bulegoan gordetzeko tokirik ez dutela. Negozio hori informatizatuz gero, hainbat abantaila lortuko genituzke, hala nola...

1. Zereginak automatizatzea: Aurrekontuak eta fakturak egiteko lana automatizatuko genuke; bezero guztiak eta salmenta guztiak jasoko dituen datu-basea (4.1. fitxa) eta gehien saldu-tako oihalen azterketa eskuragarri izango genituzke.

2. Kontrol ekonomikoa eta finantzarioa: Datu finantzarioak eskuragarri, hile amaiera arte itxaron behar izan gabe. Horri esker, etekinei eta gastuei buruzko informazioa hobeto erabiliko genuke edozein egunetan, kontuak eramaten dituen aholkularitza-enpresaren diagnostikoaren zain egon behar gabe (4.3 fitxa).

3. Informazioaren kontrola: Bai bezeroei bai enpresa hornitzaileei buruzko informazioa eskuragarri izateko, bulegoko artxiboetan bilatu behar izan gabe eta, ondorioz, informazioa bikoitzeko arriskurik gabe. Informazioaren kontrol handiagoa izateko beste abantaila bat bezeroei buruzko datuak eskura izateko aukera da, besteak beste: adinaren, sexuaren, herriaren, egindako kontsumoaren... arabera sailkapena.

4. Espazioa irabaztea: Ordenagailuaren laguntzarekin, fakturen artxiboak dituzten apalek gaur egun hartutako espazio osoa erabilgarri izango genuke

5. Denbora irabaztea: Ordenagailuak bezeroei buruzko informazioa denbora laburragoan aurkitzeko aukera ematen digu, eta iragazki bat ere erabil dezakegu une bakoitzean behar dugun informazioa bilatzeko, gainerako informazioa ukitu beharrik gabe. Beraz, irabazi dugun denbora hori bestelako enpresa-jardueretan eman ahal izango dugu.

6. Segurtasuna: Norbaitek pentsatu al du inoiz zer gertatuko litzatekeen bulegoan ezbehar natural bat edota sute edo uholde simple bat gertatuz gero? Bulegoa informatizatzen badugu, aldizkako segurtasun-kopiak egiteko aukera izango dugu, egindako lanari eta bezero guztiei buruzko informazioaren babes-kopia bat beti eskura izatearren (7.3. fitxa).

Con la entrada de los ordenadores en el mundo empresarial hemos llegado a conseguir una mejor eficacia y control sobre los datos de nuestra clientela y empresas proveedoras, permitiéndonos con ello una mejor gestión de los mismos. De igual manera se ha generado un ahorro de tiempo, permitiéndonos tener mas tiempo para otras actividades empresariales o bien lo que es mejor, para nuestra empresa. Con ello podremos disminuir costes, por lo que se aumentará el beneficio y se conseguirá una empresa más competitiva.

Ordenagailua lan-munduan sartzearekin batera, bezeroei eta enpresa hornitzaileei buruzko datuen eraginkortasun eta kontrol handiagoa lortu dugu. Horri esker, datu horien kudeaketa egokiagoa eta denbora irabaztea lortu dugu, bestelako enpresa-jardueretarako edo, are hobeto, guretzako denbora gehiago dugularik. Hala, kostuak murriztuko ditugu eta, ondorioz, etekina areagotu eta lehiakorrago izatea lortuko dugu.